

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

772

IRAGARKIA, 2024ko urtarrilaren 26koa, Industria Administrazioaren Arabako lurralde-ordezkarirena, zeinaren bidez jendurrean jartzen baitira Laudio eta Aiara udal-mugarteetan (Araba) dagoen «Ferosca I» (27 MW) izeneko parke eolikoaren proiektuaren eta hari lotutako azpiegituren aurretiazko administrazio-baimena eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena egiteko eskabideak.

115/2002 Dekretuaren 7. artikuluan (115/2002 Dekretua, maiatzaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan parke eolikoetako energia eolikotik energia elektrikoa ekoizten duten instalazioei baimena emateko prozedura arautzen duena) eta 24/2013 Legearen 53 artikuluan (24/2013 Legea, abenduaren 26koa, Sektore Elektrikoari buruzkoa) ezarritako ondorioetarako, eta bat etorritik Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearekin, jendurrean jartzen dira «Ferosca I» (27 MW) izeneko parke eolikoari eta hari lotutako azpiegiturei buruzko proiektua eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena.

Espedientea: 01-GE-Y-2023-00012

– «Ferosca I» izeneko parke eolikoaren proiektua, 27 MW potentzia instalatua duena:

a) 6 aerosorgailu, 4,5 MW-ko potentzia unitariokoak, eta 113 m-ko altuera duen abatza dutenak; dorre meteorologiko 1, 113 m-ko altuera duena; eta 30 kV-ko azpiegitura elektrikoa, aerosorgailuen arteko interkonexioa egiteko, Laudio eta Aiara udal-mugarteetan (Araba).

b) Sortutako energia elektrikoa husteko azpiegitura:

b.1.– 30 kV-ko sekzionamendu zentroa, Aiara udal-mugartean (Araba).

b.2.– Tentsio erdiko lurpeko linea (30 kV), sekzionamendu zentrotik «ST Aiala 30.000» azpiestaziora. I-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAU enpresa banatzaileak dauka Aiara udal-mugartean (Araba).

– Xedea: energia elektrikoa sortzea lehorreko teknologia eoliko berriztagarriaren bidez.

– Eskatzailea: Ferosca Wind SL (IFK: B10967594).

– Eskaeraren helburua: aurretiazko administrazio-baimena eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena.

– Tartean dauden udal-mugarteak: Laudio eta Aiara (Araba).

– Banaketa-sarera husteko puntua: «ST Aiala 30.000» azpiestazioa, 30 kV-ekoa, i-DE Redes Eléctricas inteligentes, SAUrena.

– Gauzatze materialaren aurrekontua: 22.197.334,84 euro.

Industria Administrazioaren Arabako Lurralde Ordezkaritzak eman behar dio proiektu honi alde aurreko administrazio-baimena. Jendurrean erakusteko izapidea bete behar du baimena horrek, dena den, ingurumen-inpaktuaren azterketarekin batera, horrela ezartzen baita Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 36. artikuluan.

Hori guztia argitaratzen da, interesdunek eta, oro har, herritarrek dokumentazioa azter dezaten Industria Administrazioaren Arabako Lurralde Ordezkaritzan (Samaniego 2, Vitoria-Gasteiz) eta Interneteko url honetan: <https://www.euskadi.eus/energia-eta-meategi-inguruko-proiektuei-buru-zko-informazioa/web01-a2energi/eu/>

Industria Administrazioaren Arabako Lurralde Ordezkaritzari alegaziorik aurkeztu nahi izanez gero, honako aukera hauek daude: idatziz aurkeztu ahal izango da bertan, euskarri fisikoan; erregistro orokorrean; EAEko Administrazio Publikoaren erregistro elektronikoa orokorrean (<https://www.euskadi.eus/erregistro-elektroniko-orokorra/web01-sede/eu/>), edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan ezarritako moduren batean. Alegazioak aurkezteko epea 30 egun baliodunekoa da, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Ohartarazpen moduan, pertsona juridikoen, nortasun juridikorik ez duten entitateek eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan identifikatuta dauden bestelako subjektuek nahitaez erabili behar dituzte baliabide elektronikoak administrazio publikoetan, administrazio-prozedura bateko edozein izapide egin ahal izateko. Hori dela eta, jendaurreko izapide horretan alegaziorik aurkeztu behar badute, baliabide elektronikoak erabiliz egingo dute nahitaez.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urtarrilaren 26a.

Industria Administrazioaren Arabako lurralde-ordezkarria,
PEDRO RODRÍGUEZ DÍAZ.